



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO MAIATZAREN 26AN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/04/28KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko apirilaren 28ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2020-0070

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsu irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2019-2020 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO 2020/01/30)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala

Lehenengoa: Euskara ikasleentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honek erantsita dituenak.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2020 (A 733/2020)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2020ko ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

3.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTENENTZAKO EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2020-0069

Ikusirik

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du euskara ikasteko behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei 2020-2021 ikasturterako dirulaguntzak aurreratzeko.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO 2020/01/30)

Tokiko Gobernu Batzarra honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Behar ekonomiko bereziak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko matrikularen diru-kostua aurreratzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honek erantsita dituenak.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2020 (A733/2020)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



Usurbilgo Udala

Laugarrena: Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik, 2021ko uztailaren 9a bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

4.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk: KE.01/2020-68

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2019-2020 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat dirulaguntzak bideratzeko dirulaguntza oinarriak prestatu ditu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2020/01/30)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honek erantsita dituenak.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 481 326 00 01 2020 (A 732/2020)



Usurbilgo Udala

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2020ko ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.